

1.- EUSKAL PRESO POLITIKO GAIXOAK: GAIXOTASUNAK ETA EGUNGO EGOERA (08/03/27)

1.1.-GAIXO LARRIAK:

Hona gaur egun espetxeetan ditugun euskal preso politiko gaixo larrien zerrenda:

JON AGIRRE AGIRIANO. Aramaioa. **1942an jaioa.1981/05/05ean atxilotua.** 30 urtera zigortua. Langraitzeko espetxean gaur egun.

1.- **Osasun egoera:** **Artrosi orokortua** (bi aldakak ukituak). **Hernia diskala L4-L5en artean.** 2005ean egin zioten eskuineko aldakako ebakuntza: **protesi bat ezarri diote.**

Diabetes Mellitus 1998an diagnostikatua. Horren ondorioz: **alde biko miopia, hiperkolesterolemia, hiperglizeridemia eta Miokardioko Bihotzeko Larriaren arriskua.** Honetaz gain, **eskuineko eskuko Dupuytre gaixotasuna.**

2.- **Egoera juridikoa:** **30 urtetara zigortua,** 1996/05/11an bete zituen zigorraren 3/4ak eta **2006/10/28an** bete behar izan zuen **zigor osoa,** baina **06/09/25ean,** **Entzutegiko dotrina berria indarrean ezarri eta zigorra beste 5 urtez luzatuko dioten ebazpena jakinarazi zioten; irailaren 19an zigorraren kitatzea 2011/05/03ra arte luzatzen dio ENeko Zigor Aretoko Lehen Arloak.** Hau da, 30 urteko zigorra bere osotasunean bete arte.

2005/07/15ean bere **baldintzapeko askatasuna (92.art.)** eskatzen zaio **Entzutegi Nazionaleko Espetxe Zaintzarako Epaitegi Zentralari;** urte bereko **azaroaren 21ean** ezezkoa ebazten du epaileak. **Apelazio errekurtsioa** aurkezten da eta **2006ko apirilaren 21an Zaintzarako epailearen ebazpena berresten du Entzutegi Nazionaleko Zigor Salak.**

2007/01/12an 92. artikulua indarrean jartzea eskatzen dio **ENko Espetxe Zaintzarako Epaitegi Zentralari.**

2007/04/12: **2. graduan klasifikatu** dutela komunikatzen diote.

2007/12/05: **Eneko Espetxe Zaintzarako Epaitegi Zentralak ukatu** egiten dio **92. art.**

BAUTISTA BARANDALLA IRIARTE. Etxarri-Aranatz. 1964ean jaioa. 1990/09/18an atxilotua. Iruñeko espetxean egun.

1.- **Osasun egoera:** **Kolitis ultzerosoa.** 02/03/13an diagnostikatzen diote eta 02/04/30ean larrialdiko ebakuntza egiten diote Zaragozako Miguel Servet Ospitalean: **Kolektomia eta Ileostomia bat** egiten diote. 03/02/04ean ebakuntza berria: **Mukosektomia bat eta ileostomiaren berrezarpena.**

Spondilitis ankilosantea eta bi aldeetako Sakroileitisa.

2.- **Egoera juridikoa: 30 urtetara zigortua**, 2004/08/20an betetzen ditu zigorraren 3/4ak eta 2010/05/21ean zigor osoa. **02/05/01ean CPko 92. artikulua eta RPko 104.4 eta 196. artikuluen aplikazioa eta Iruñeko espetxerako trasladoa eskatzen zaio Zaragozako Zaintza Epaileari: 03/09/16an askatasunaren eskaeraren kontra eta trasladoaren alde ebazten du Entzutegi Nazionalak.**

02/09/2an, Iruñeko espetxean egonik, **CPko 92.artikulua eta RPko 104.4 eta 196. artikuluen aplikazioa** eskatzen zaio **Iruñeko Espetxe Zaintzarako Epaileari: 03/02/27an eskaeraren kontra ebazten du.**

03/05/22an konfiantzazko medikuaren bisita **baimentzen du Zaragozako Espetxe Zaintzarako Epaitegiak. 04/07/1ean debekatu egiten du baimen hori Iruñeko espetxeak.**

06/11/27: 92. artikulua indarrean jartzea **eskatzen** dio Entzutegi Nazionalako Zaintzarako Epaitegi Zentralari.

07/02/02: ENeko Espetxe Zaintzarako Epaitegi Zentralak **ukatu egiten du** baldintzapeko askatasunaren eskaera.

07/02/12: Ebazpen honen gaineko **helegitea** bideratzen da.

07/03/16: Epaile berak **atzera botatzen** du helegitea.

07/04/27: Iruñeko **espetxeak egindako eskaera ere atzera botatzen dute.**

ANGEL FIGUEROA FERNANDEZ.- Getxo. Langraitzeko espetxean egun. Kordoba du destino espetxea. 1971ean jaioa. 1994/10/25ean atxilotua.

1.-Osasun egoera: Epilepsia tenporala eta eskuinaldeko zein zkerraldeko esklerosi mesiala. Gaixotasun larri eta sendaezina da hau: konbultsioak, portaera aldatuak eta delirioak eragin ditzake.. **2005etik aurrera, Epilepsia atakeak** izan ohi ditu, azkena 07ko uztailen. **06/06an ebakuntza** bat egin zioten, **lobektomia** bat, hain zuzen. Honen ondotik, baina, krisiak areagotu zaizkio: 2006ko eta 2007ko uztailerako dira larrienak; azken garaian etengabeko krisialdiak ditu eta alde fisiko zein psikologikoan larriki eragiten dio. Krisialdiak oso bortitzak dira, zauriak eragiten dizkionak. Azken urtean bere krisialdien maiztasuna areagotu egin da etengabe: aldiro eraman behar izan dute ospitalera, krisialdi bortitzen ondoren. Baina, aldi berean, Gurutzetako Ospitalean egindako kontsultak eta Cordobarako trasladoak tartekatuta izan dira. Horren ondorioz, gose greba bat burutu behar izan du bere bizi-baldintzak hobetzeraren. 07ko urrian bi astez ingresatzen dute Gurutzetako ospitalean, eta bertan bere egoeraren larritasuna baieztatzen da: gaitza burmuineko ezker aldean ere agertzen da. Baina, halere, hurrengo hilabetean Cordobara eramaten dute berriro, bere neurologoaren txostenari kasu egin gabe; hau da, gaixotasun mota honek egoera lasaia, loaldi ordutegi finkoa eta tentsiorik gabeko egoera eskatzen duela. 2008 urtea berdin hasten du: bi astez ingresatu behar izan dute Txagorritxun, abenduaren bukaeran izandako krisialdi gogor baten ondorioz. Berriro itzultzen dute Langraitzera, baina krisialdiek tartekatzen jarraitzen dute. Azkena, martxoaren 26ko gaueko 12takoan izan da: orain arte izan duen bortitzenetako bat eta erreanimatzen saiatu arren, bere onera etorri ezinean egon dena. Txagorritxun ingresatu dute.

2.- Egoera juridikoa: 30 urtetara zigortua, 2009/10/25ean betetzen ditu zigorraren 3/4ak. **2007/04/12:** 92. art. aplikatzeko eskatzen du. **2007/07/31:** Ukatzen diote eskaera.

JOSE RAMON FORURIA ZUBIALDEA. Markina.1949an jaioa.. 4 urte espetxean .Dueñasko (Palentzia) espetxean egun.

1.- **Osasun egoera:** Neo besikala; **Maskuriko minbizia.** 04/11/22an Gregorio Marañoneko Ospitaleko Urologia kontsultan egindako biopsian Kartzinoma uroteliala erakusten du. 05eko urtarrilean BCG, zistoskopia eta zitologia kontrolak agintzen ditu espezialistak. Une honetan bukatua du fase honetako tratamendua.

2.- **Egoera juridikoa:** 30 urtetara zigortua baina Gorenera errekurritua, 2018/10/04ean betetzen ditu 3/4ak. **2004ko azaroan bertan askatzeko eskaera** (zigorra etxean betetzea) egiten zaio Entzutegi Nazionaleko **Espetxe Zaintzarako Epaitegi Zentralari: 2006ko otsailean ezezkoa ebazten du. 2006/12/28an** bere behin-behineko askatasuna eskatzen dio. **ENko Espetxe Zaintzarako Epaitegi Zentralari. 2007/03/15: Ukatzten diote** behin-behineko askatasunaren eskaera.

MIKEL GIL CERVERA.- Iruñea. Zuerako espetxean (Zaragoza) egun. 1964an sortua. 1992/06/09an atxilotua estatu frantsesean eta 2000/04/10ean estraditua espainiar estatura.

1.- **Osasun egoera:** **Depresioa. Balizko delirio krisiak** izan zituen orain 15 urte. 1996ean artatzen duen psikiatraren diagnostikoaren arabera, **Antsiatzko depresioaren patologia eta oinarrizko pertsonalitatearen desoreka** da bere gaitza. Konfiantzazko psikiatrarakin kontsultak izan ditu. Horretaz gain, artrosia eta artikulazioetako arazoak: Kondromalazia errotularra, artosi femur-tibiala, eskuineko belauneko meniskoko lesioa eta zerbikalgia.

2.- **Egoera juridikoa:** 30 urtetara zigortua, 2015/04/10ean betetzen ditu zigorraren 3/4ak. **06/12/28an 92. artikulua** indarrean jartzea eskatu dio ENko Espetxe Zaintzarako Epaitegi Zentralari. **07/07/26: Eskaera ukatu diote.**

M^a DOLORES GOROSTIAGA RETUERTO.- Iruñea.1956an jaioa.1997/12/18an atxilotua. Logroñoko espetxean egun.

1.- **Osasun egoera:** **Eskuineko bularreko minbizia (Kartzinoma duktal infiltrantea) 05/05/03an** Kartzinoma duktal infiltrantea erakusten dute histologiako emaitzek. **Uztailan mastektomia** partzial bat egiten diote Logroñoko Ospitalean. **Abuztutik aurrera erradioterapia sesioak** hartzen hasten da Iruñean. Bitartean Ginekologia kontsultara (COFES-Iturrana) doa non mioma uterino bat diagnostikatzen dioten: **2006ko otsailean bi mioma** azaltzen ditu maginako EKOak. Honetaz gain, ebakuntzaren ondoriozko **Linfedema, Diabetes Mellitus, Dislipemia mistoa eta Hipertentsio arteriala** ditu. Onkologia, Ginekologia eta Fisioterapia kontsulta eta tratamenduen beharra du.

2.- **Egoera juridikoa:** 28 urtetara zigortua. **1998ko azaroan** Valladolideko **Espetxe Zaintzarako Epaitegiak baimentzen** ditu konfiantzazko medikuen bisitak; 1999an arazorik gabe gauzatzen dira bisitak. **2003ko otsailean bisitarako baimena** eskatzen du berriz eta espetxeko **zuzendaritzak ez du baimentzen. 05/03 15ean Iruñeko espetxera eramatea** eskatzen zaio **Entzutegiko Espetxe Zaintzarako Epaile Zentralari**, ebakuntza eta tratamendua bermatzeko (LOGPko 3. eta RPko 4. eta 208.1

artikuluen aplikazioa). Azkenean Logroñon bertan egin izan behar dute ebakuntza, 05/07/01ean. **06/12/12: Baldintzapeko askatasuna (92. art.) eskatzen dio ENko Espetxe Zaintzarako Epaitegi Zentralari. 2007/04: Iruñeko espetxeak egindako eskaera (92. art.) atzera botatzen dute.**

GOTZONE LOPEZ DE LUZURIAGA FERNANDEZ.-Agurain. Jaénen dago. 1959an jaioa.1989/09/17an atxilotua.

1.- Osasun egoera.- Bularreko minbizia topatu zioten **2007ko ekainaren hasieran (Kartzinoma duktal infiltrantea, 1. graduan) Ekainaren 26an ebakuntza** egin zioten Jaengo Ospitalean eta adenokartzinoma erauzi zioten. **2007-09-18an** 35 eguneko erradioterapia tratamenduari hasiera ematen dio. Nekez eta traba ugariz burutzen da tratamendua.

2.- Egoera juridikoa.- 30 urtera zigortua. DGIPek (Dirección General de Instituciones Penitenciarias) 104.4. art. ezarri dio espetxeak hala eskatuta eta, ondorioz, 3. graduan ezarri dute. **07/08/02:** Jaen Espetxeko Tratamendu Batzordeko batzarrean, aho batez, Zaintza Epaitegi Zentralera (ZEZ) Baldintzapeko askatasun espedientea bideratzea erabakitzen du. **07/08/09:** Jaen Espetxeko Junta de Tratamiento batzarrean, mediku zuzendariordeak Gotzoneren osasun egoerari buruzko azken berriak aurkeztu ondoren, bere kontrako boto bakarrarekin, iritiz aldatzea eta Baldintzapeko askatasunaren kontra egitea erabakitzen dute. **07/11/16:** ENeko EZEZak ez du onartzen baldintzapeko askatasunaren eskaera. Espetxeko Tratamendu Juntaren iritziarekin bat egiteaz gain, Gotzonek bere ideia politikoei uko egiteari emaniko ezetza ere kontuan hartzen du eskaera ukatzeko.

JUAN JOSE REGO VIDAL.- Donostia.**1939an jaioa.** 12 urte espetxean. Mansillako (León) espetxean egun.

1.- Osasun egoera: Gaitz zerebrobaskularra (1988tik ezaguna), Diabetes Mellitus eta hipertentsioa duela hamabost urte baino gehiagotik.Horren ondorioz, **Retinopatia diabetikoa,kataraten hastapena bi begietan eta ikusmenaren galera nabarmena bi begietan:** ezintasun larria irakurtzeko; **ikusmen zorrotasunaren galera larria. Bi aldeko hipoakusia neurosensoriala. Prostataren hipertrofia. B12 bitaminaren eskasia. 2005ko azaroan istripu zerebrobaskular** bat izan zuen (tonbosia), ikusmena eta ezkerreko hankako indar eta mugikortasun gabezia eragin ziona. Aldi berean, sei hilabetez egon zen oroimen galerarekin. Zorabioak eta sudur-odol jarioak aldiro. Medikuen arabera, bere kasua larria da oso. Izan ere, bere adina eta bere gaitzen larritasuna kontuan hartuta, kalean egonik ere oso hurbiletik eta asko zaindu beharreko paziente litzateke. **2007/07:** Sendagileak **prostataren ebakuntza** gomendatzen du. **2007/09:** Oftalmologoak **ezkerreko begiko ebakuntza** gomendatzen du, ikusmena ia guztiz galdua duelarik (kataratak). Eskuinekoan, berriz, galera oso nabarmena da ere.

2.- Egoera juridikoa: 20 urtetara zigortua. **2004/01/18an Euskal Herriko espetxe batera eramana izatea** eskatzen du DGIPra; **04/01/18an ukatu** egiten diote eskaera. **004/05ean Entzutegi Nazionaleko Espetxe Zaintzarako Epaitegi Zentralera** zuzentzen du kexa; **uztailaren 1ean kexa aztertzea berari ez dagokiola ebazten du** aipatu epaitegiak. **05/12/01ean Entzutegi Nazionaleko Zigor Aretoko 2. Salara** igortzen da bere **zigorraren etenaren eskaera; 06/02/13an zigorraren etena ez**

onartzea ebazten du aipatu Salak. **06/04/25**ean ebazpen bera berresten du Zigor Aretoko 2. Salak. **06/11/23**: Espetxeko Junta de Tratamientoak ukatu egin du graduaren progresioa. **06/12/01**: **Behin-behineko askatasuna eskatzen** dio (92. art.) ENko Espetxe Zaintzarako Epaitegi Zentralari. **07/03/14**: Bere egoerak okerrera egin duela ikusirik (ikusmena ia galdua du)Donostia Ospitaleko Barne Medikuntza **kontsultarako eskaera** egiten da, apirilaren 20rako. **07/03/30**: **Ukatzen diote 92. artikulua**. **07/04/23**: ukatzen dute trasladoa, neurriko asistentzia duenaren aitzakia pean. **07/07/24**: E·Neko EZEZak **ukatu** egiten du **erreforma helegitea**. **07/11**: Traslado eskaera berritzen du. **2008/02/22**: DGIPEk (Espetxe Agintaritzak) ukatu egiten dio trasladoa.

JOSU URIBETXE BARRIA BOLINAGA.- Arrasate. **195an** jaioa. Uztailean 10 urte beteko ditu espetxean. Langraitzen dago egun, destinoko espetxea Puerto-II badu ere.

1.- **Osasun egoera**: **Giltzurruneko minbizia**. **Ezker giltzurruneko kartzinoma**. **2005/06/09an nefrektomia bat** egiten diote: ezkerreko giltzurruna kentzen diote. Ondorioz, aldian aldiko kontrolak egin beharko ditu Urologiako Kontsultan; **bitza osorako tratamendua** da. Egoera hau (espetxearena, alegia), noski, ez da egokiena gisa honetako gaixo batendako: espetxean jarraituz, kanpoan egonik baino arrisku larriagoa du gaitza birpiztu dadin. Bestela ere, 2 urtetan gaitza birpizteko arriskuaren aukera % 51ekoa da.

2.- **Egoera juridikoa**: **30 urtetara** zigortua.. **06/12/01**: **Baldintzapeko askatasuna eskatu** dio (92. art.) ENko Espetxe Zaintzarako Epaitegiari. **07/05**: Eskaera **ukatu** diotela jakinarazi digute. **07/07/24**: ENeko EZEZak **ukatu** egin du **Erreforma helegitea**.

Bederatzi preso hauetaz gain, **beste hiru** ere baditugu gaixotasun larrien barnean kontabilizatuak eta 92. artikulua indarrean jartzea eskatu edo eskatuko dutenak. **Gaixotasun psikologikoak ukitutako pertsonak** ditugu hauek eta beren borondatea errespetatuz, momentuz ez ditugu izenak publiko eginen.

***Nahasmen obsesibo-konpulsiboa** duen gizonetzko. 1960an jaioa. 4 urte daramatza espetxean eta 18 urtetara zigortua dago. Kanpoan ere gaitz berarekin zebilen. Krisi garaiak eta egoera lasaiak tartekatzen ditu. **2007/1/11an 92. artikulua** aplikatzea eskatzen du. **07/05**: Eskaera **ukatu** diotela jakinarazten diote.

***Depresio koadro larria** duen gizonetzkoa. 1966an jaioa. Pertsonalitate eskizoidea sumatzen zaio. 6 urtetara zigortua **2006/12/ 28an 92. artikulua** aplikatzea eskatzen du. **2007/07/31**: Eskaera **ukatu** diote.

***Nahasmen eskizofreniformea** duen gizonetzkoa; **depresioa sintoma psikotikoekin**. 1978an jaioa. 9 urte daramatza espetxean eta 30 urtetara dago zigortua. **2006/12/21**: **92. artikulua** aplikatzeko eskatu dio ENeko Espetxe Zaintzarako Epaitegi Zentralari.

Zerrenda honetan zehazten den bezalaxe, aipatzen diren presoek gaixotasunak larriak edo sendaezinak dira edozein toki eta egoeretan. Gainera, adinean aurre egindakoak ditugu larrienak, eta espetxealdi luzearen zama daramate gehienek: Jon Agirre, Juan José Rego, José Ramón Foruria... Adin batetik aurrera ezintasun larriak sortzen dituzten gaitzei buruz ari gara, edozein egoera eta baldintzetan; edo minbizia bezalako gaitzak, bizi-baldintza guztiz egokiak behar dituenak aurrera egin ahal ez izateko; edota osasun mentala larriki ukitua duten pertsonak. Gainera, espetxe-araudia berak aukera ematen du (92. art...) gisa honetako gaitzak pairatzen dituen preso askatasunean uzteko, bere osasunerako egokiena den inguruan bizi ahal izateko. Baina ez hori bakarrik; kontuan izan behar da ere hauetako asko espetxeak edo espetxeko bizi baldintzek zuzen sortutako kasuak direla. Beraz, ardura are handiagoarekin jokatu beharko lukete espetxea eta egoera hauek kudeatzen dituzten arduradunek.

Baina ez, goian aipatzen den bezalaxe, pertsona hauen osasun egoera larria izanik ere ia gehienetan behin eta berriro ukatzen zaie beren osasunerako ezinbestekoa den behin-behineko edo baldintzapeko askatasuna. Hau da, gaur egun aplikatzen ari diren eskandaluzko eta neurrigabeko espetxe-zigorrek kontuan harturik (**30, 40 urtekoak**), de facto HERIOTZA ZIGORRA aplikatzen ari direla esan daiteke zalantza izpirik gabe.

Gauzak horrela, gaur egun euskal preso politikoei ezartzen zaizkien neurri berezien artean bi azpimarratu nahi ditugu bereziki, beren osasunean zuzen eragiten dituztenak: ia bizitza osorako espetxealdiko zigorra eta ukapen sistematikoa askatasun eskaerari gaixotasun larriak pairatzen dutenentzat. Egungo egoera kontuan izanik, non espetxe zigorraren urteak gero eta gehiago luzatzen ari diren, epe motzean eragin guztiz larria izango dute neurri hauek preso politikoen osasun egoeran. Eta datu aipagarri bat: gaixo larrien askatasunaren ukapen guzti hauek gaur egun gertatzen ari dira, ustezko gobernu aurrerakoi baten pean.

1.2.- EUSKAL PRESO GAIXOEN KOPURUAK

Gaixo larriez gain, badago kopuru zabal bat osasun asistentzia zuzena eskatzen dutenak. Hauexek dira:

Gaixotasun fisikoa dutenak **1432** dira:

ESTATUA	EMAKUMEAK	GIZONAK	PRESOAK
Frantzia	3	18	21
Espainia	19	102	121
Guztira	22	120	142

Asistentzia psikologikoa jasotzen dutenak (larritasunagatik 92. art. eskatu dutenak barne) **42** dira:

ESTATUA	EMAKUMEAK	GIZONAK	PRESOAK
Frantzia	0	6	6
Espainia	6	30	36
Guztira	6	36	42

Eta mota guztietako osasun asistentzia jasotzen duten presoek **kopuru totala**, beraz, honako hau da: **184**

ESTATUA	EMAKUMEAK	GIZONAK	PRESOAK
Frantzia	3	24	27
Espainia	25	132	157
Guztira	28	156	184

Beraz, kontuan izanik 730en bat euskal preso politiko daudela egun (zifrak aldakorrak dira) **%26ren bateko kopurua da gaixorik dagoena**. Eta horietako **% 6,5ren bat gaixo larri** daudenak.

2.-ESPETXEA ETA ONDORIO PSIKOLOGIKOAK: HONDAMENDIA ETA HERIOTZA

2.1-Has gaitezen zerrenda bat eta kasu berri batzuekin. Hona hemen espetxeak eraginda espetxean hildako euskal preso politiko batzuen zerrenda:

1.-José Ramón Goikoetxea Bilbao.- Loiukoa. 1985/06/26an urkatua agertu zen Alcalá-Mecoko espetxean.

2.-Mikel Lopetegi Larrarte.-Tolosakoa. 1988/03/02an urkatua agertu zen Herrera de la Manchako bere ziegan.

3.-Jean Groix.- Bretainakoa. 1991/01/20an urkatua agertu zen Fresneseko espetxeko bere ziegan.

4.-José María Aranzamendi Arbulu.- Elorrikoa. 1997/02/07an urkatua agertu zen Alcalá-Mecoko bere ziegan

5.-Juan Karlos Hernando González.- Arrigorriagakoa. 1997/07/20an urkatua agertu zen Albaceteko espetxeko bere ziegan.

6.-Oihane Errazkin Galdos.- Donostiakoa. 2004/07/07an urkatua agertu zen Fleury espetxeko bere ziegan.

7.-José Angel Alzuguren Perurena.- Berakoa. 2005/10/31an urkatua agertu zen Soriako espetxeko bere ziegan.

8.-Igor Angulo Iturrate.- Santurtzikoa. 2006/02/27an urkatua agertu zen Cuencako espetxeko bere ziegan.

Zortzi pertsona hauek nahasmen edo desoreka psikologiko nabarmenik gabe espetxeratu zituzten, eta denboraldi ez oso luze baten ondoren bere buruaz beste eginda edo gisa horretan aurkitu zituzten.

2.2.-Apunte honen harira, **bi kasu larri** berriki gertatuak ezagutarazi, aldarrikatu eta salatu nahi ditugu. Kasu hauek egoera krudel eta larri baten erakusgarri dira, alarma eta **argi gorri guztiak piztera** eraman gaituztenak. Eta, aldi berean, egoera hauen arduradunak nortzuk diren jakinarazi nahi dugu.

Badajozeko espetxean dagoen **Alfontso Sebastian** preso politikoaren kasua dugu horietako bat. Joan den apirilaren 6an zauri sakonak egin zituen besoetan eta lepoan, azken aldiko honetako espetxe egoerak eragindako presioak eraginda. Gainera, martxoko atxilotetetan bere lagun batzuk atxilotu zituzten, eta une oso larriak pasa zituen haien egoeran pentsatzerakoan: bera ere torturatu zuten eta ezin zuten bere burutik kendu oroitzapen hori. Une latza pasa izan du eta damutu da egindakoaz, baina egoerak berriro menperatuko duen arriskua dago. Handik egun gutxira, berriz, Soto del Realen dagoen **beste preso politiko batek** ere antzeko saio bat egin zuen, zauriak hain sakonak ez baziren izan ere. Bere borondatea errespetatuz, bere izena ez da publiko eginen, baina kasu honetan ere espetxeko presioak eta azken aldi honetan euskal preso politikoei ezartzen ari zaizkien neurri errepresiboek eragin zuzena izan dute gisa honetako erabakia hartzeko tenorean. Argi utzi nahi dugu detektatu ditugun bi kasu hauek epe motzean gertatutakoak izan direla; ez da erraza kalkulatzea zenbat pertsona dauden antzeko egoeran.

Zerk eragiten du atxiloketa unean pertsona orekatuak zirenak handik urte batzuetara gisa honetako erabaki latzak hartzea? Bi une horien artean faktore garrantzitsu batzuk daude: **espetxea, espetxealdia eta espetxe politika zehatz bat**. Izan ere, espetxea, egitura bera, presoaren ustezko jokamolde deliktiboak deuseztatzea dago zuzendua, eta bere baliabide guztiak horretara zuzenduko ditu. Xede horretara egokituko ditu espetxearen egitura fisikoa bera (presoaren bakartasuna areagotzeko) eta baita espetxeko arautegia, pertsona horren denboran ere, besteak beste, eragiteko. Hau da, pertsona horren oinarri pertsonalean eragingo du funtsean. Eta horren orde, jendartearen balioak bere egiteko aukera eskainiko dio espetxeak presoari. Baina euskal preso politikoen kasuan nortasun politiko edota ideologikoa da espetxeak eta sistemak

apurtu nahi dutenak, eta horretarako presio ikaragarria bideratuko du, presoaren damutze edo sistemarekiko atxikimendua lortu nahian. Eta hori lortzen ez badu, bide bakarra eta ikaragarria erabiliko du: espetxealdia infernu bat bilakatzea presoarentzako eta bizi osorako luzatzea.

Horrela bada, euskal preso politikoei zuzendutako gaur egungo espetxe politika bost zutabe hauetan oinarritzen da: espetxe errejimen zorrotzera (1.go gradua) gehienentzat hasiera hasieratik eta zigorra amaitu arte, sakabanaketa edota urruntze sistematikoa beren senideengandik, komunikazio mota guztien interbentzio zorrotza (bisiten murrizketa sistematikoarekin batera), bakartze edo isolamendu neurri sistematikoak eta espetxe zigorra bizi osorako luzatzea. Eta honekin guztiarekin nahasia, noski, tenkadura eta presio iraunkor bat. Jakina, giro bat non pertsona baten besteekiko komunikazio mota guztiak interbenituak dauden -intimitate guztia urratuz-, bere inguru naturaletik urrundua eta bakartua egon behar duen, etengabeko tenkaduran bizi behar duen eta, gainera, 40 urtez lau hormen artean bizitzera behartzen duten, giro hau, noski, pertsona suntsitzeko soilik dago bideratua. Eta horrela esplikatzen dira zenbait pertsonen heriotza lazgarriak edota egoera psikologiko hain kolpatuak.

Arlo psikologiko edo psikiatrikoan kokatutako honako gaitzak detektatuak ditugu euskal preso politikoen artean gaur egun: Koadro depresibo larriak, paranoia eta delirio larriak, eskizofrenia koadroak, antsietate koadroak, brote psikotikoak delirio ideiekin, torturak eragindako estres postraumatikoa, urteetan luzatzen dena...

Laburbilduz, heriotza kasu hauen eta suntsitutako pertsona hauen **egoeraren erantzule bakarra espetxe sistema bera da**. Heriotza kasuak ez dira berez horrela gertatu, espetxe politika planifikatu baten ondorioz baino. Presoak ez dira berez psikologikoki hondatzen, tenkadura eta deserrotze politika baten ondorioz baino. Edo berez sortzekotan, espetxea da tokirik ez egokiena pertsona hauek sendatzeko.

3.-OSASUN ASISTENTZIA EZA: ONDORIOAK

3.1.-Osasun arloan heriotzarena dugu muturreko ondorioa, eta espetxeko asistentzia ezaren inguruan ere **heriotza zerrenda beltz bat badugu. Espetxeetako sendagileen axolagabekeriak eta espetxeko arduradunen ardura ezak eragin izan dituzte neurri handi batean heriotza hauek:**

1.-Juan José Crespo Galende:27 urtekoa. Herrera de la Manchako espetxean 1981/06/19an **gose greban** hildakoa

2.-Joseba Asensio Artaraz: 27 urtekoa. Herrera de la Manchako espetxean 1985/06/26an **tuberkulosiak** hilda agertu zena.

3.-Juan Karlos Alberdi Martiarena: 30 urtekoa. Herrera de la Manchako espetxean 1988/06/15ean **bihotzeko** batek jota hil zena.

4.-Mikel Zalakain Odriozola: 58 urtekoa. 1990/12/01ean Martutenen **bihotzeko** batek jota hil zena.

5.-Pello Mariñelarena Imaz: 29 urtekoa. 1993/05/15ean Fresnesen **IHES**aren ondorioz hil zena.

6.-Roberto Sainz Olmos: 41 urtekoa. Aranjuezeko espetxean 2006/03/04an **bihotzeko** batek jota hil zena.

Zerrenda honetako kasu gehienetan espetxearen funtzionamenduak, axolagabekeriak eta espetxe politika berak funtsezko eragina izan dute pertsona hauen heriotzan. Izan ere, “ez normala”ren arteko parametroan gutxienez sartu beharko genuke Joseba Asensio bezalako 27 urteko gazte bat bat-batean tuberkulosiak hilda agertzea. Eta gauza bera Mikel Zalakain bezalako 58 urteko gizon bat, bihotzeko larri bat eman ondoren aholkatutako tratamendua eta asistentzia hilabete luzez ukatu ondoren egun batean bere ziegan hilda agertzea. Edo Roberto Sainz bezalako 41 urteko pertsona bat behin eta berriro alferrik ongi aztertzea eskatu ondoren, bihotzekoa eman bere ziegan eta bere deiei luzez erantzun gabe egon ondoren espetzeko erizaindegian hiltzea. Besteak beste. Ez gaitu batere harritu behar, kontuan hartuta espetxean “segurtasuna”rena balio nagusia dela; presoaren osasunaren gaineko balioa, kasu honetan. Kasu zehatz bat: ziega itxi batetik deika ari bada preso, denbora tarte luze bat itxaron beharko da “beharrezko” segurtasun neurriak hartu eta atea irekitzea baimentzeko. Presoa larrialdi goeran badago ere. Eta zer esanik ez deia gauez egiten bada.

Hau dena kontuan harturik, baldintza hauetan heriotza kasu gehiago ez gertatzea da gehien harritzen duena; eta honen esplikazioa bilatzeko beste zerrenda beltz batera jo beharko dugu: zuzen etxera hiltzera atara dituzten preso gaixoena:

Josu Retolaza Loidi: 33 urtekoa. 1986/10/14ean kartzinoma epidermoideagatik etxeratua eta 1987/05/19an zendua.

Jabi Gorostiza Lajarriaga: 1994/07/16an laringeko minbiziagatik etxeratua eta 1995/06/17an zendua.

Santi Díaz Uriarte: 1997/03/25ean eztarriko minbiziagatik etxeratua eta 1997/10/27an zendua.

Esteban Esteban Nieto: 45 urtekoa. 1999/04/07an gibeleko minbiziagatik etxeratua eta 1999/09/26an zendua.

Kepa Miner Aldabalde: 70 urtekoa. 1999/07/02an biriketako gaixotasunagatik etxeratua eta 2004/04/26an zendua.

Jean Louis Maitia: 1997/06/06an aske geratu zen eta 1997/08/25an bihotzeko batek jota hil zen.

Juan José Etxabe: 1996/07/11an bihotzeko batek jota hil egin zen, espetxetik askatu eta gutxira.

Hauetako kasu gehienetan, espetzeko osasun asistentzia oso motela izan zen, eta beranduegi hartu ahal izan zen gaixo hauek etxeratzeko neurria. 92. artikulua ezarri zientetik hil ziren arteko denbora tarte oso laburra da kasu gehienetan. Minbizi

kasuetan, batez ere, denbora gehiegi pasa zen gaitza detektatu zenetik preso hauek behar bezalako tratamendua jaso arte. Eta, ondorioz, hiltzera kaleratu zituzten. Hor ditugu Josu Retolaza, Jabi Gorostiza, Santi Díez, Esteban Esteban etab.en kasuak. Ildo honetan, guztiz adierazgarria izan zen Jabi Gorostizaren kasua. Gizon honi, behar bezalako arreta ez jartzeagatik minbizia beranduegi detektatzeaz gain, baldintzapeko askatasuna baldintza batekin eman zion epaileak: bere ideiei espreski uko egitea. Hau da, hiltzera zihoan arren irizpide politiko-ideologikoen zuten garrantzi nagusia.

3.2.-Badago beste faktore bat euskal preso politikoen osasun asistentzia ezan zuzen eragiten duena: konfiantzazko sendagileen bisiten debekua. Izan ere, edozein gaixok eskubide osoa du berak nahi duen sendagilea aukeratzeko, bere egoera edonolakoa izanik ere. Espetxeko arautegia berak onartzen du eskubide hau, baldintza batzuk ezartzen dituen arren; baina espetxe kanpoko osasun asistentzia onartua dago. Orain dela bospasei urtetik hona, berriz, ia sistematikoki ukatzen zaie euskal preso politikoei aukera hau: espetxeko sendagileen esku soilik uzten da beren osasun asistentzia. Eta ukatzeko irizpidea politikoa da soilik, “segurtasun neurri”ekin lotua beti: profesional horiek –espetxeko arduradunen iritziz beti- preso horien inguru ideologikokoak izatea. Edo noiz ala noiz preso gaixoen egoera publikoki salatu izana. Ondorioz, sistematikoki ukatuak dira eskaera mota hauek. Hona azken aldiko adibide batzuk:

1.-Konfiantzazko Traumatologia espezialistaren bisita ukatuak:

06/05/04: Alcalá-Meco
 06/11/20: Alcalá-Meco
 06/11/21: Herrera de la Mancha
 06/12: Zuera
 07/04/16; Zuera
 2007ko amaiera: Almería
 2008ko hasiera: Puerto III

2.-Konfiantzazko sendagilea:

04/07/01: Iruñea
 05/10/25: Málaga

3.-Konfiantzazko psikiatra:

06/05ko bukaera: Aranjuez
 06/09: Logroño
 07/05: Badajoz (Konfiantzazko bi psikiatrei)

4.- Konfiantzazko psikologoa (lehendik baimenduak zeudenak):

08/01/15: Alcalá-Meco eta Logroño.
 08/01/19: Aranjuez.
 08/02/08: Aranjuez eta Soria
 08/02/07: Zuera
 08/02/11: Langraitz
 08/02/? : Brieva, Mansilla, Iruñea, Málaga Iruñea, Badajoz, Burgos eta Puerto I

Egoera honek ondorio zuzenak ditu preso gaixoengan. Izan ere, ukapen sistematiko honen ondorioz konfiantzazko medikuen asistentzia edo gaixoen jarraipena guztiz mugatua suertatzen da. Edozein gaixoren asistentzia bermatzeko beharrezkoa da bere

sendagileak pertsona hori zuzen ikustea, miatzea eta berarekin hitz egitea bere sintomak etab. ezagutu ahal izateko; baina eskubide hau ukatua du euskal preso politikoak. Ondorioz, asistentzia zuzena eskaini ezin denez, presoaren asistentzia edo jarraipena gutun interbenituetara edota senideen berrietara mugatuko da. Hau da, guztiz konfidentziala beharko litzatekeen kontsulta interbenitua dugu, “segurtasunaren” aitzakiarekin beti ere. Gisa honetako da euskal preso gaixo baten asistentzia. Eta ez hori bakarrik, konfiantzazko espezialista baten kontsulta ezin jasotzeak espezialista pribatuen eskutan uzten dituzte askotan gaixo hauek, bai gaixoari bai senideei diru xahutze handia suposatzen dielarik askotan.

Beste kontu bat dugu baimenduak dauden konfiantzazko psikologoaren bisiten egoerak. Izan ere, Estatu espainiarrean batez ere, bisita mota hauek onartzen dituzten kasuetan bisita hauen baldintzak negargarriak dira kasu askotan: bisita interbenituak, bisita arrunteko lokutorioetan, espetxeko psikologoaren edota segurtasun zuzendariordearen presentzian, euskara ezin erabili... Hau da, gisa honetako kontsulta batek izan beharko litzatekeen baldintzen (konfidentzialtasuna...) guztiz kontrako egoeran burutzen dira kontsulta hauek. Baina larriena zera da: konfiantzazko profesionalen asistentzia psikologikoa -bisita edo kontsultak- guztiz debekatzen ari direla. Ondorioz, preso gaixoa arras babesgabe dugu, espetxearen menpe erabat eta bere konfiantzazko laguntzarik jaso ezinean.

3.3.-Badago beste egoera bat ere ikaragarri nabarmentzen duena aipatzen ari garen asistentzia eza egoera hau: euskal preso politiko gaixoei jasan behar dituzten egoerak kanpo kontsultetarako trasladoetan eta kontsultetan bertan. Kanpoko ospitale batera ateratzeko tenorean itxaron tarte oso luzeak jasan behar diren gain, kontsultetarako edo ingresoetarako trasladoetan suertatzen diren egoerak guztiz salagarriak izaten dira: edozein gaixotasun edo trauma izanik ere denbora luzez (ordu luzeak askotan) eskuak loturik eta atzeko aldetik kasu askotan, temperatura hotzegi edo beroegi furgonetetan... Edo arazoak ospitalera eramateko tenorean ere. Iker Arzelus presoari bi aldiz jarraian suertatu zaio (martxoan eta apirilean) sorbaldako luxazio bat izan eta ia egun osoa ospitalera atera gabe edukitzea oinazeen artean, polizia-erakundearen laguntzarik “ez zegoela”ren aitzakia pean. Eta gauza bera suertatu zitzaion 2005ean; ondorioz, abuztuan egin behar zioten sorbaldako ebakuntza baina ez dute eraman orain arte. Bestelako kasua gertatu zaio Laura Riera preso katalandarrari. Preso hau bere haurduanldiaren 6. hilabeteetan dago eta agindua zegoen anbulantzia batean eramatea Tarrassako espetxera, “arriskuzko haurdunaldia”ren kasua baita berea. Kontua da Valentziatik Tarrassara eramateko Madrilgo Soto del Realetik pasa dutela, eta furgoi arrunta batean, ez anbulantzian, agindu bezala. Oraindik Soton dago, guztiz zorabiatua bidaiari gogor baten ondoren.

Kontsultetan, berriz, oso egoera larriak suertatzen dira. Ginekologia kontsultetan, adibidez, behin eta berriro errepikatzen dira polizia-erakundearen laguntzarik arazoak. Hor ditugu Marilo Gorostiagaren kasua, non 2006ko lehen hilabeteetan gisa honetako arazo asko izan zituen: polizia-erakundearen laguntzarik kontsultan bertan egon nahi zuten, eta horrela egotera behartu zuten. Edo Merche Chivite, Fleuryko espetxetik Evryko ospitalera eraman zutenean, non polizia-erakundearen laguntzarik jasan behar izan zituen kontsultan bertan. Edo Aitziber Sagarminagaren kasua, Villabonako espetxetik kanpoko ospitale batera Ginekologia kontsultara eraman zutenean: hainbestera izan zen bertan jasan zuen egoera iraingarria eta duintasunaren aurkakoa (polizia-erakundearen laguntzarik nahi eta nahi ez kontsultan bertan presente egon nahi zuten), ze espetxera itzultzea erabaki zuen, kontsulta burutu gabe.

Edo Idoia Martinezen kasua, Madrileko ospitale batean aurtengo martxoaren 10ean erditu zenean: kontrakzioekin hasi zenean eta medikuak aztertzen ari zitzaiola polizia ondoan izan zuen aldi oro, eta erditu zen unean atea irekita utzi zuten, poliziek dena ikus zezaten...

Eta hau dugu benetako errealitatea, euskal preso politikoetaz hitz egiterakoan beti "ahazten" diren xehetasunak. Izan ere, lehen esan bezala, "segurtasuna" kontzeptua gainerako eskubide guztiak urratzeko erabiltzen da behin eta berriz euskal preso politikoei dagokienez. Garaia da hau guztia behar den bezala zabal dadin, beranduegi izan gabe.